



ZARAUZKO UDALA

ZARAUZKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUA EGITEA, DINAMIZATZEA, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK PRESTATZEA ETA KUDEATZEA. "A" eta "B" KARTAZALAK IREKI eta DOKUMENTZAI OA KALIFIKATZEKO AKTA

1. Bilkurari buruzko datuak:

- Bilkura eguna: 2019ko urriaren 3a
- Ordua: 12:40an
- Lekua: Etxezabala- Idazkaritzako bilera gela
- Kontratuaren gaia: ZARAUZKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUA EGITEA, DINAMIZATZEA, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK PRESTATZEA ETA KUDEATZEA

- Esleipen modua: Prozedura irekia; ohiko jarduera

2. Bertaratu direnak:

Mahaikideak: Iker Basurko jauna, Zarauzko Udaleko alkatearen ordeaz.
Nagore Artamendi andrea, Udaleko jarduneko idazkaria.
Karmele Lizaso andrea, Udaleko kontu-hartzailea.
Xabier Aranburu jauna, Ondareko AOT
Edurne Urbietta andrea, Parekidetasun departamentuko arduraduna.
Jabier Etxaburu jauna, EH-Bildu udal taldeko zinegotzia.
Gloria Vazquez andrea, Parekidetasun departamentuko zinegotzi arduraduna.
Paul Muñoa jauna, Lurralde arloko koordinatzailea.

Idazkaria: Mertxe Arregi and., Udaleko kontratazioko administraria.

3. Bilkuraren edukia eta erabakia

Zarautzen, 2019ko urriaren 3an, eguerdiko hamabiak eta berrogei direnean ZARAUZKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUA EGITEA, DINAMIZATZEA, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK PRESTATZEA ETA KUDEATZEA adjudikatzako prozeduran egon diren proposamenak irekitzeari ekin zaio, administrazio-baldintzen agiritik dagozkion aginduak irakurri eta gero.

Eskaintzak aurkezteko epean, hurrengoek aurkeztu dute proposamena:

KABIA HEZIKETA ELKARTEA
ARAZI IKT, S.L.
DAITEKE
ORTZADAR.

Ondoren, proposagileek aurkeztu dituzten "A" kartazalak ireki dira. Kartazalak ireki ondoren, horien edukia aztertu eta baldintzen agirian ezarritakoarekin alderatuta, dokumentazioa zuzena da.



ZARAUZKO UDALA

Jarraian "B" kartazalak ireki dira. Balorazioa Edurne Urbieta Parekidetasun departamentuko arduradunak egingo du.

Lehengoa bukatu ondoren eta 13:00ak direnean, amaiera ematen zaio egintza honi, eta horretaz fede ematen dut.

Mahaiko idazkaria

